



Donarioena (-a) *etxebizitza*

Aldaerak:

Ahozkoa: Donáridxona



43° 9' 54"

2° 34' 33"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada de Donariena... radicante en la Cofradía de Eitua jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con su plazuela o zaguan una superficie de cuadrena y tres estados, y la que se compone de una habitación con cuadra, su alto y camarote..."
DJE 1/74 or. (1864)

Bizitza bakarreko baserri honen gaineko lehendabiziko erreferentzia 1745eko Bizkaiko su-erroldetan aurkitzen dugu, hots, *Donario*. XIX. mendetik aurrera, *Donarioéna* (1859, BUA, Nmcr.) aldaera nagusitzen da, eta hortik aurrera eta gaur egun arte, horrela ezagutzen da baserria, hau da, *Donariona* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean eta ahozko transmisioaren ondorioz, *Donáridxona* moduan ezagutzen da.

Duela oso gutxi berrizaturiko baserria da. Jatorrian etxe estua zen, eta atea alde batean zeukan, leiho bi lehenengo pisuan eta ganba-

ran, berriz, txori-tokiak. Beranduago, beste gorputz bat erantsi zioten eskumaldean. Azkeneko obretan, neurri batean behintzat, jatorrizko itxura mantendu dute, eta bi gorputz zirenak bateratu egin dituzte, bien artean zegoen harrizko horma ezkutatu egin baitute, luzituta eta pintatuta. Harrizko dintel ederra daukan atea erdian geratu da. Goiko pisuko leihoak maila berean daude, eta frontoian, lehengo txori-tokien ordeztu, leiho txiki bi zabaldu dituzte, harriz forratutako horman. XIX. mendeko etxea zena antzeman daiteke oraindik.

toponimia

Donario eta "etxe" adiera duen -ena atzizkiak sortutako baserri izena. Aipatutako ena atzizkiak 'etxe' adiera badu ere jatorriz NOREN kasutik atera zen: Donarioaren etxea > Donariona. Donario hitz arrunta da, "dohaina" edo "bertute" eta "saria" adiera dituen. Kasu honetan pentsatzekoa da jabearen edo bertan bizi izan zenaren ezizena dela eta ondorioz Donarioaren etxea adierazi nahi du.